

Enpresan egongo diren jarduerak (aplikazioa organizatzea, online klaseak ematea...) gure gain egongo dira baina hainbat jarduera gure enpresatik kanpo geldituko dira; gure aplikazioa sortzeko, informatika enpresa bat kontratatuko dugu guk ez baitaukagu informatikaren inguruan jakituriarik; baita ere, irakasle partikularrak kontratatuko ditugu beste ikasleek aplikaziora igotzen dituzten apunteak bezeroei ikusgai egon aurretik ondo dauden ala ez ziurtatzeko eta gutaz gain beraiek online klaseak eman ditzaten.

Ikasleek publizitatearen bidez ezagutuko dute aplikazioa eta behar dutenek izena emango dute eta gure bezero bihurtuko dira aplikazioa deskargatu eta bertako apunteak erabiliz.

Alde batetik, apunteak, hainbat ikasleek igoko dituzte plataformara eta hauen apunteak babesteko, hau da, apunte bat bi aldiz zabaldu ez dadin eta gure APP-ra harpidetuak diren DBH eta batxilergoko ikasleek soilik apunteak edukitzeko copywrite-a jarriko diegu apunteei, apunteak igoko dituzten ikasleentzako mesedegarria izango delarik eta bezeroak babestuak sentituko direlaki. Bestalde, online klaseak ezingo dira grabatuak izan.